

# Ekonomi eta Lan Mundu Taldea. Urtarrilak 2.013

Proposamena: Gaizka Ormaza.

Kontutan harturik Ekonomi Taldean egindako diagnostikoa, Turismo sektorearen egoera eta beren etorkizuneko aukerataz, aportazio hauek azaldu nahi nuke.

Emandako datuetatik, azpimarratzekoa da, turismo bulegotik pasatzen diren %95k Gaztelugatxeko informazioa eskatzen du. Beraz, nire ustetan, gure estrategia, aukera hori osotzea izango zan. Zer esanik ez, beste zerbitzu edota eskaintzak bultzatu behar direla, baina bestearen inguruan.

Beste alde batetik, **Bermio Urdaibairen Atea** izatea nahi dogu. Beraz, gure estrategia Gaztelugatxe eta Urdaibaien oinarritu behar da.

Estrategi hau, **Hiru Zangoetan** landu ahal dogu.

Gure antzinako historiotan azaltzen dan bezala, San Juan hiru zangoetan aillegatu ote zan Bermeotik eta Gaztelugatxeraino. Beraz, istorio hau erabili ahal dezakegu, gure herria ezagutzen emateko.

## Hiru Zangoak



**-Lehengoko Zangoa:** Sozio kulturala.

**-Bigarren Zangoa:** Arrantza eta ingurokoak.

**-Hirugarren Zangoa:** Industri eta bere atalak.

Logo idatzia: (???) "**Bermeo Txangoan, Hiru zangotan.**" / **Bermeo hiru zangoetan.**

Logo grafikoa: "Gaztelugatxe, Bermeoko portu barruan. Hiru zangoak gainean."

Lehenbiziko gauza, zangoak garatzea ta indartzea izango da. Horretarako, **zirkuito** bat sortu behar dogu **txangozaleak jarraitzeko.**

**Zirkuitoa.**- Zer erakutzi badogu, eta hiru zangoetan oinarrituz, erakutziko dogu.

Gure oztopo haundiena izango da, zelan moldatu gure zirkuitoa Gaztelugatxe eta Matxixako barnean egoteko, eta jendea herrian geratzea ahalik eta denbora gehien. Zein eta ezin dogu ahaztu, zirkuitoaren helburu kulturala aparte, ekonomikoa dela.

## **-Lehen Zangoa.-**Sozio kulturala

### Gaztelugatxe.-

- Ze azpiegitura dauka.
- Marketing materialak, bideak, etabar.
- Patrimonia eta burujabetasuna.
- Historia. Baloreak eta natura.
- Jaiak eta ekintzak.
- Ze historioak dagoen beren inguruan. Idazkiak, ipuinak, argazki eta margoak.

### Matxixako.-

Lehengoz zehaztu beharko doguna zein dan bere inguruan sortu nahi duten plana. Oztopo bat, bidearen egoera. Ezin da autoz ibili. Bestalde, Gaztelugatxearekin batera aurkeztu ahal dogu.

**Lanberri proposamena.-** Aterpe edo begira toki bat jartzea da, auto bidetik Gaztelugatxeko ikus puntutik onenean. Informazioa ematea aparte, toki gorde bat izatea izango zan bere helburua. Bakiotik datozenak, helbideratzeko toki interesgarria. Baita ere aterpe bezela, taberna txiki eta egon leku.

Portua eta Itsasoa.- Zirkuitoan azaltzen dan moduan, gure portuaren balioak erakutzi behar doguz. Egia da, hortarako lehenbiziko baldintza, portuaren garbitasunari soluzio bat ematea izango zan.

Izaro eta Ogoño, Urdaibairen “porteroak” dira. Beraz, jakin beharko genuke, beraien indartasuna saltzen.

Herriko jendeari plan hau adierazi beharko zaio, oso inportantea da. Bereganatzea eta inplikatzeta, guztiz positiboa izango zan. Bai, kolaborazio mailan (garbitasuna, zaintzaile, etabar), eta konplizidadean.


## **-Bigarren Zangoa.-** Arrantza.

- Bere inguruan ematen diren atal, ontzi eta arrantza motak, arteak, historia.
- Salmentako azpiegitura. Kofradia eta kofradeak.
- Aita Guria. Ontziolak.
- Museoa.
- Europar eta arrantzaren eboluzioa. Etorkizuna.


### **-Hirugarren Zangoa.-** Arrantza eta elikaduraren Industria.

- Arrantzaren industriaren eboluzioa.
- Kontserbazioaren erabilera. Hotza, gatza, ozpiña eta olioaren erabilketa.
- Ontzi ezberdinen erabilketa, latak do kriztalezko potoak, etabar.
- Kontserba eta elikaduraren trasformazioa.
- Lehen sektorea eta kontserbaren inportantzia.
- Ormaza museoa.

**Azpiegitura eta Zerbitzuak.-** Argi dago Zango hauen inguruan zerbitzuak sortu behar direla. Kalitatezko zerbitzuak. Hau da, ezin dogu gureganatu turismorik, ez badogun baldintza minimo batzuk betetzen. Eta gainera, zerbitzu integrala izan behar da. Besteren beste, hiru hauek azpimarretzen dotaz:

- Indikadoreak.- **Zirkuito** guztia gidatua izan behar da. Atrilak erabiliz(¿) edota beste edozein medio. Gainera, azalpenak argiak eta hizkuntza ezberdinetan izan behar dira. Baita ere, zaindu beharko genuke zirkuitoan, kale arteko garbitasuna eta imajena, sastar badoak, argiak, sastar ontziak, etabar.
- 
- Lo eta jantokiak.- Gaur egun eta giro orokorra kontutan hartuz, oferta alternatiboa izan behar da. Hau da, ez da nahikoa non eta zenbat restaurante dagozen esatea, gama zabal bat eskaintzea baino. Ogitartekoak, etxeko janaria, begetarianoa, etabar. Gaur egun, jendea gastoa kontrolatzen dau. Argiak eta zehatzak izan behar gara gure eskaintzetan. Gainera, itsas herri bat saldu nahi badogu, egoki izango zan restauranteko jendea, bertoko jantziarekin izatea.
- ETA GURE HIZKUNTZAN.**
- Lo egiteko zerbitzuetan ere, gauz bardina da. Eskaintza argia, garbia eta kalitatezkoa.
  - Marketing-a.- Egindakoak kanporatu behar dogu. Inbertsioa errentabilizatu. Eta hortarko komunikazio bide guztiak erabili behar doguz. Bai gure mugatik eta barne, eta atzerrira ere. Hizkuntza zainduz eta imajen argiarekin. Turismo bulegoak, internet orriak, atzerriko Euskal Etxeak , etabar. CD, Kamistak, pin edota edozein medio barri eta baikorra erabiliz.

Zirkuitoaren proposamena.-



Irteera Informazio bulegotik, segiduan Santa Eufemiako erakusketa, Fraile Lekuko kaletik (zenb. 1) arrain salmentara (Kofradi Zaharra), Gaztelu azpitik Fraile Leku puntara(zenb. 2), portu zaharratik bueltan eta Torronteroko eskilaratik gora museoraino(3). Handik Talakoetxetik Baztarrera(4). Andra Maritik buelta, Irakaskintzako kaletik san Juan

portaleraino(5). Doniene kaletik Goiko Plazaraino(6), eta buelta Arostegitik Lameraino(7).

(1).- Kofradi zaharraren salmenta tokia oso proposa da, bai arrain salmenta erakusketa egiteko eta beste edozer azaltzeko. Toki zabala eta aproposa.

(2) Fraile Leku punta.- Antzinako toki popularrenetariko bat . Sarri azaltzen da margo eta liburutan. Hor atril grafiko bat ipini beharko zan. Antzinako portuaren(Bizkai Buru)erabilketak eta ontzi motak azalduz.

(3) Museoa eta Torronteroren ikustokia.- Ikustokitik, galerna eta beren erainketaren relato txiki bat. Museo aurrean, ate ondoan, jarri beharko genuke atril eder bat, bertako presentazioa egiñez.

(4) Baztarre.- Antzinako auzo zaharrenetarikoa. Popularra. Gure herriko ikustoki zabal eta ederrenetarikoa. Ikusmen ezin hobea, Izaro eta Ogoño ,**Urdaibairen hasiera**. Bertako balkoian, orientaziozko atril bat jarri beharko zan. Ezinbezteko tokia, Urdaibai atearen erreferentzi bezela.

(5) San Juan atea.- Hemen dogu aukera, Gaztelugatxe, Matxitxako eta gure Herriko historia zati bat azaltzeko. Eta beren ikustaldia bideratzeko.

(6) Goiko Plaza.- Udaletxea eta santa Maria.

(7) Beti Aita Guria.- Bertako istorioak azaldu beharko dira. Zirkuitoaren amaiera. Beraz, kontuan hartu behar da, nora bideratu nahi genuke jende hori. Herriko eta inguruko eskuzko informazioa.